



2.4 DIRU ITURRIAK

Proiektua aurrera ateratzeko dirua edukitzea ezinbestekoa da. Hau lortzeko hainbat aukera daude baina garrantzitsuenak diru laguntzak eta parte hartzaileen kuotak izango dira garrantzitsuenak.

Lehenik, parte hartu behar duten pertsonen kuotak jarri beharko dira. Kuota hau aurrera eramateko umeen kostu guztiak konruan hartu beharko ditugu. Kostu hauetan ondorengoa sartzen da: bazkariak, materialak, seguruak eta jarduera guztiak. Prezio hau bi moduta banatu dezakegu egun bateko prezioa 15-20€ egunean, edo aste osoko prezioa hau 100-150€koa izango dela.

Bestalde, Gaintzako udaletik laguntza eskatu beharko dugu. Udalari diru-laguntza eskatuko diegu, hau herriarentzat udaleku hauek izango duten garrantzia azalduz egingo dugu. Proiektu honek herriari bizia eta dirua emando dio bisiten eta erosketen bidez. Udalari aurkeztuko diogun eskaeran kostuen laburpena egin beharko da.

Tokiko enpresak eta negozio txikiak ere aukera onak dira diru iturriak lortzeko. Gaintan edo Gaintzatik gertu dauden denda txikiei, ostalaritza dendei eta nekazaritza enpresei dirua eskatuko diegu udalekuak babesteko. Horren truke guk publizitatea egingo dugu gure udalekuetan eta udalekuko sare sozialetan; hau, udalekuetan logoak jartzen eta sare sozialeta argazkiak igotzen egingo dugu.

Herriko familie eta inguruko enpresei ere laguntza eskatuko diegu udalekuak antolatzeke helburua azalduz. Horrez gain online kanpainak ere erabiliko ditugu, interneten badaude kanpaina batzuk non, proiektuaren ideia aurkeztzen duzun eta hau ondo baldin badago diru-laguntzak ematen dizkizue adibidez: Goteo.

Diru iturri gehiago edukitzeko ekitaldi bereziak ere antolatuko ditugu. hauek, herriko festa txiki bat, azoka bat edo pintxo dastaketa bat antolatzea ideia ona iruditzen zaigu. Horrez gain, enpresak utzitako produktuekin zozketa bat antulatuko dugu, hau rifak eginez egingo dugu eta saria enpresek utzitako produktuekin zesta bat izango da.

Azkenik, kostuak murriztea ezinbestekoa izango da. Zenbat eta kostu gutxiago eduki geroz eta diru iturri gutxiago beharko ditugu.